

ORDEZKOGAIEN ZERRENDAK **IKASTETXE PUBLIKOETAN**

2008ko urtarrilaren 6an eta 13an prentsan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren web orrian iragarri zenez, ikastetxe publikoetan zenbait espezialitatetan ordezkapenak egiteko izangaien zerrendak ireki ziren, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan, Lanbide Heziketan, Hizkuntzen Irakaskuntzan eta Musika Irakaskuntzetan, baita Hezkuntza Berezian ere.

Zerrenda horiek, besterik esan arte, irekita daude gaur egun eta eskaera berriak onartzen dira, sarrera-ordenaren arabera.

Hala ere, eta apirilean egingo den 2008-2009 ikasturterako birbarematzeko prozeduran eskaerak behar bezala kudeatuko direla bermatzeko, honen bidez jakinarazten da 2008ko urtarrilaren 7tik martxoaren 18arte, barne, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera sartu diren eskaerak sartuko direla birbarematze horren ondorioz atera diren zerrendetan.

Martxoaren 18tik aurrera sartzen diren eskaerak sarrera-dataren arabera ordenatuko dira.

LISTAS DE CANDIDATOS/AS A **SUSTITUCIONES EN CENTROS** **PÚBLICOS**

Con fecha 6 y 13 de enero de 2008 se anunció en prensa y en la página web del Departamento de Educación, Universidades e Investigación la apertura de listas de candidatos/as a sustituciones en centros públicos en diversas especialidades correspondientes a los niveles de Infantil, Primaria, Secundaria, Formación Profesional, Enseñanzas de Idiomas y Enseñanzas de Música así como de Educación Especial.

Dichas listas permanecen abiertas a fecha de hoy hasta nuevo aviso, admitiéndose nuevas solicitudes por orden de entrada.

No obstante, y para garantizar una adecuada gestión de las solicitudes en el procedimiento de rebaremación para el curso escolar 2008-2009 previsto para el mes de abril, se comunica que se incluirán en las listas resultantes de dicha rebaremación aquellas solicitudes que hayan tenido entrada en el Departamento de Educación, Universidades e Investigación desde el 7 de enero hasta el 18 de marzo de 2008 inclusive.

Las solicitudes que tengan entrada con posterioridad a la citada fecha serán ordenadas por fecha de entrada.